# EZTABAIDATU DEZAGUN!

## GIDATUTAKO UNIBERTSITATE DEBATEA LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUKO IRAKASLEGAIEN KOMUNIKAZIO GAITASUNEN ETA GIH-EN GARAPENERAKO TRESNA.

MIREN ARTETXE, MIKEL GARTZIARENA, GARBIÑE BEREZIARTUA, ANA GANDARA

### IRAKASLEGAIAK GAITZEKO PROIEKTUA

**Lehen eta Haur Hezkuntzako irakasle** izateko unibertsitate-formakuntzari esker, irakaslegaiek gai izan behar dute haien jardun profesionalean aurkitzen dituzten kasuei erantzuteko, **kalitatezko hezkuntza** eskainiz eta **desberdinkeria sozialak** birsortzea saihestuz (**genero**- ala **hizkuntza**-desberdinkeriari dagokionez, besteak beste).

Proiektu honetan, haien egunerokoan sor daitezkeen egoerei buruz debatitu dute, egoera hipotetiko horien aurrean nola jokatu erabakitzeko.

Horretarako, **komunitate zientifikoak** sortutako ezagutza aurkitu eta prozesatu dute, ondoren euren kasuan nola aplikatu erabakitzeko, kideekin **hausnartuta eta eztabaidatuta**.

### HELBURUA

Jendaurreko komunikazio gaitasuna lantzearekin batera irakaslegaiak haien jardun profesionalerako gaitzea da, beraz, helburua.

### METODOLOGIA

**GUD metodologia egokitua**
(Arrue et al., 2017, 2021; Cuesta eta Arrue, 2020).

- 1. mailan bi asteko formakuntza
- 2. mailan 4 asteko prozesua
- 310 ikasle (12 talde praktiko)
- 30 debate

**Datu bilketarako:**

- PRE eta POST inkestak
- Debate-osteko feedback saioak

### EMAITZAK

- Irakaslegaiek **hezkuntza-egoera horiei aurre egiteko** gaitasun **handiagoa** sentitzen dute (%26-34k "oso handia" PRE vs %34-36 POST).
- **Jendaurrean egoki hitz egiteko gaitasuna** "ertaina edo handiagoa": %77 (PRE) → %81 (POST)
- **Jendaurrean hitz egiteak sortzen duen antsietatea**: %40k "handia/oso handia" (PRE) → %22 (POST)
- %89k uste du **ezagutza zientifikoaren eta irakasle-lanaren arteko harremana** estua dela (POST)
- **Metodologiari** ikasleen balorazioa ere erabat positiboa izan da:




### EZTABAIDA/ONDORIOAK

Proiektua arrakastatsua izan da irakaslegaien gaitze profesionalerako:

- **Pentsamendu kritikoa** garatzeko
- Ikasleen **jendaurreko komunikaziorako** urduritasuna murrizteko
- Irakaslegaiak **irakasle-funtziora** hurbiltzeko
- Irakasle-jardun profesionalerako **ezagutza zientifikoaren** balioa ikusarazteko.

Metodologia baliagarritzat jo dute ikasleek.

### ERREFERENTZIAK

Arrue, Marta; Unanue, Saloa eta Merida, David (2017). Guided university debate: Effect of a new teaching-learning strategy for undergraduate nursing students. *Nurse Education Today*, 59, 26-32.

Arrue, Marta, eta Zarandona, Jagoba (2021). El debate en el aula universitaria: construyendo alternativas para desarrollar competencias en estudiantes de ciencias de la salud. *Educación Médica*, 22, 428-432.

Cuesta, Amaia eta Arrue, Marta (2020). Gidatutako Unibertsitate Debatea: erizain-gaitasunak trebatzeko hezkuntza-metodologia aktiboa. *EKAIA EHUko Zientzia eta Teknologia aldizkaria*, 38.